

18/01 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Juan Carlos Jauregui
Javier Laiseca
M^a Teresa Ojaguren
Mikel Pagola
Ismael Redondo
Usoa Urbieta
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2018ko urtarrilaren 25eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda onartzen zuen uztailaren 4ko 186/2017 Dekretua aldatzeko Dekretu proiektuari buruzkoa.

I.- AURREKARIAK

Uztailaren 4ko 186/2017 Dekretuaren bidez onartu zen EAEko ikastetxeetan hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakaskuntzaz besteko lan kontratudun langileen lanpostu zerrenda.

Dekretu hori zuzendu egin zen, lanpostu zerrenda jasotzen zuen eranskina osorik argitaratuz Euskal Herriko Aldizkari Ofizialeko 164. alean, 2017ko abuztuaren 29an.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek artikulua bakarra dauka, eta baita ere bi azken xedapen eta eranskin bat. 1. artikulua onartu egiten ditu Eranskinean jasotako lanpostu zerrendan egindako aldaketak. Lehen azken xedapena errekurtsioak jartzeko prozedurari buruzkoa da. Bigarren azken xedapenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

Eranskinean Arabako Ordezkaritzako lanpostu zerrenda dago jasota.

III. – BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek 16/09 Irizpenean aztertu zuen lanpostu zerrenda hau onartzen zuen Dekretu Proiektua; irizpen horretan balorazio positiboa egin zitzaion LPZ argitaratu eta plazak ugaritu izanari.

Dekretu proiektu honek aldaketa hauek proposatzen ditu:

- Hezkuntza bereziko bi laguntzaile-plaza jomuga zentroz aldatzea, zehazki A01 Berritzegunetik A02 Berritzegunera.
- Bi plazaren hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datak aldatzea, zehazki 2017ko irailaren 1ean iraungitako HLEA profila dutenak, eta datarik gabeko HE1 profila ematea. Atxikitako dokumentazioan azaltzen da aldaketa hori egin dela ebazpen judizial irmo bi bete behar zirelako; ebazpen horiek zioten lanpostuak prozedura arruntaren bidez bete arte postu horietan zeuden pertsonak langile finkoak zirela eta, beraz, LPZn esleitutakoaz besteko profila duten postuetan integratu behar zirela.

Kontuan izanik Euskadiko Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrek aztertu zuela aldatzeko proposatzen den Dekretu proiektu hau, proposatutako aldaketak zuzenketa puntual bat besterik ez direla eta ez dutela aldatzen argitaratutako plaza kopurua, Kontseiluak ez dauka oztoporik proposatzen den aldaketa egiteko.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2017ko urtarrilaren 26a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA